

# NEKAZARITZA-USTIATEGIETAN FRUTAK/BARAZKIAK/LEKALEAK/ TUBERKULUAK ETIKETATZEA

## Zuzenean edo hirugarrenei salduta ONTZIRATUTA merkatuzten diren landare-produktuen ETIKETATZE-ESKAKIZUNEI buruzko informazioa

### ONTZIRATU GABE, SOLTEAN

SALMENTA MODALITATEA	USTIATEGIAN BERTAN/ AZOKA-FERIETAN/ USTIATZAILEAK WEB BIDEZ SALDUAK	USTIATEGITIK KANPO + HIRUGARRENEI SALDUAK
ARAUDIA	126/2015 ED (art 4. art.) 51/2024 Dekretua (7. art. etiketatzea hurbileko salmentan) 3423/2000 ED (prezioa)	1169/2011 Erregelamendua 1808/1991 ED (Lotea) 2023/2429 Erregelamendua (frutak eta barazkiak merkaturatzeko arauak)
ETIKETATZE- ESKAKIZUNAK	<p><b>EZ DIRA ETIKETATU BEHAR</b>, ahoz edo kartel batean jakinaraz daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikagaien izena ①</li> <li>- Prezioa</li> </ul> <p><b>MERKATURATZEKO ARAUAK APLIKATZEAREN SALBUESPENAK</b> (2023/2429 Erregelamendua, 5. artikulua, 1. puntua)</p> <p>Ekoizleek zuzenean kontsumitzaileei saltzen dizkieten produktuak, beren ustiategietan edo agintari eskudunek zehaztutako ekoizpen-eskualde batean erabiltzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tokiko azoka batean, ekoizleentzat gordetako leku batean, edo</li> <li>- Zuzenean entregatzekoak.</li> </ul> <p>Hortaz, <b>EZ DA BEHARREZKOA</b> kalibreari, kategoriari eta barietateari buruzko informazioa ikusgai jartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikagaiaren izena ①</li> <li>- Jatorrizko herrialdea</li> <li>- Eduki garbia</li> <li>- Langilearen izena edo sozietate-izena eta helbidea ②</li> <li>- Lotea ③</li> </ul> <p><b>MERKATURATZEKO ARAURIK BADAGO</b> sagarrak, zitrikoak, kiwiak, letxugak eta hosto kizkurreko eta hosto leuneko eskarolak, mertxikak eta brinoiak, madariak, marrubiak, piper gozoak, mahaiko mahatsa, bananak eta toma-tea), honako hau <b>GEHITU BEHARKO DA</b>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalibrea eta kategoria</li> <li>- Barietatea</li> </ul>

+ Ustiategitik zirkuitu laburrera salduz gero (bitartekari bakarra, hala nola txikizkako saltegi bat), nahitaezko informazioa eman beharko da (1169/2011 Erregelamendua 9. artikulua), ontziko taulan edo hari lotutako etiketa batean, edo elikagaiei buruzko merkataritza-dokumentuetan jasotakoa, saltegi horrek azken kontsumitzaileari eman diezaion informazio hori.

- ① Edukia kanpotik ikusten bada, ez dago zertan izena jarri. 2023/2429 Erregelamendua
- ② Produktuak hirugarren batek ontziratu gero, etiketan azalduko dira ontziratzailearen edota bidaltzailearen izena eta helbidea. 2023/2429 Erregelamendua
- ③ Ez da lotea jarriko honako nekazaritza-produktu hauetan: ekoizleen erakundeei saltzen edo ematen zaizkienak, ekoizleen erakundeei igortzen zaizkienak, edo prestatzeko edo eraldatzeko sistema eragile batean berehala txertatzeko jasotzen direnak.

Ez da jarriko alde handienak < 10 cm<sup>2</sup>-ko azalera duen ontzietan.


Ez da lotea jartzen, baldin eta azken kontsumitzailearentzako salmenta-puntuetan elikagaiak alde aurretik ontziratuta ez badaude, erosleak eskatuta ontziratzen badira eta berehala saltzeko alde aurretik ontziratzen badira.



# NEKAZARITZA-USTIATEGIETAN FRUTAK/BARAZKIAK/LEKALEAK/ TUBERKULUAK ETIKETATZEA

Zuzenean edo hirugarrenei saldua SOLTEAN merkaturatzen diren landare-produktuen ETIKETATZE-ESKAKIZUNEI buruzko informazioa

**ONTZIRATUAK** Elikagai ontziratuen definizioa (1169/2011 erregelamendua): ez ditu barne hartzen salmenta-puntu batean kontsumitzaileak hala eskatuta ontziratzen diren elikagaiak edo berehala saltzeko ontziratzen direnak.

SALMENTA MODALITATEA	USTIATEGIAN BERTAN/AZOKA-FERIETAN EROSLEAK ESKATUTA ONTZIRATUTA/AZOKAN BEREHALA SALTZEKO USTIATEGIETAN ONTZIRATUAK SALDUAK	USTIATEGITIK KANPO HIRUGARRENEI SALDUAK/USTIATZAILEAK WEB BIDEZ SALDUAK
ARAUDIA		
ETIKETATZE-ESKAKIZUNAK	126/2015 ED (art 4. art.) 3423/2000 ED (prezioa)	1169/2011 Erregelamendua 1808/1991 ED (Lotea) 2023/2429 Erregelamendua (frutak eta barazkiak merkaturatzeko arauak) 1055/2022 ED (ontziak birziklatzea)
	<p><b>EZ DIRA ETIKETATU BEHAR</b>, ahoz edo kartel batean jakinaraz daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikagaien izena ❶</li> <li>- Prezioa</li> </ul> 	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikagaiaren izena ❶</li> <li>- Jatorrizko herrialdea</li> <li>- Eduki garbia</li> <li>- Langilearen izena edo sozietate-izena eta helbidea ❷</li> <li>- Lotea ❸</li> <li>- Markaketa, birziklapena/ontziaren azken helmuga: edukiontzi horia (plastikozko eta metalezko ontziak) edo urdina (papera eta kartoia).</li> </ul> <p><b>MERKATURATZEKO ARAURIK BADAGO</b> (sagarrak, zitrikoak, kiwiak, letxugak eta hosto kizkurreko eta hosto leuneko eskarolak, mertxikak eta brinoiak, madariak, marrubiak, piper gozoak, mahaiko mahatsa, bananak eta tomateak), honako hau <b>GEHITU BEHARKO DA</b>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalibrea eta kategoria</li> <li>- Barietatea</li> </ul> <p><b>Kontsumitzeko PATATEI</b> dagokienez (31/2009 ED, kalitate-araua), kalibrea, kategoria eta barietatea ere adierazi behar dira.</p> <p><b>LEKALEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikagaiaren izena ❹</li> <li>- Merkataritza-kategoria</li> <li>- Jatorrizko herrialdea</li> <li>- Eduki garbia</li> <li>- Ontziratzailearen izena edo sozietate-izena eta helbidea</li> <li>- Gutxieneko iraupeneko data edo iraungitze-data</li> <li>- Noiz ontziratatu den ❺ (1983ko azaroaren 16ko Agindua, lekaleen kalitatea-araua)</li> <li>- Kontserbatzeko baldintza bereziak</li> <li>- Prestatzeko modua</li> <li>- Lotea</li> <li>- Nutrizio-informazioa</li> <li>- Markaketa, birziklapena/ontziaren azken helmuga</li> </ul>
		<ol style="list-style-type: none"> <li>❶ Edukia kanpotik ikusten bada, ez dago zertan izena jarri. 2023/2429 Erregelamendua</li> <li>❷ Produktuak hirugarren batek ontziratuz gero, etiketan azalduko dira ontziratzailearen edota bidaltzailearen izena eta helbidea. 2023/2429 Erregelamendua</li> <li>❸ Ez da lotea jarriko honako nekazaritza-produktu hauetan: ekoizleen erakundeei saltzen edo ematen zaizkienak, ekoizleen erakundeei igortzen zaizkienak, edo prestatzeko edo eraldatzeko sistema eragile batean berehala txertatzeko jasotzen direnak. Ez da jarriko alde handienak &lt; 10 cm<sup>2</sup>-ko azalera duen ontzietan. Ez da lotea jartzen, baldin eta azken kontsumitzailearentzako salmenta-puntuetan elikagaiak aldeztatik ontziratuta ez badaude, erosleak eskatuta ontziratzen badira eta berehala saltzeko aldeztatik ontziratzen badira.</li> <li>❹ Elikagaien izen gisa "Dilista" terminoa erabiliko da, salbu eta edukia ontziaren kanpoaldetik ikus badaiteke; kasu horretan, espeziearen izenaren ordez ("Dilista"), "Lekaleak" terminoa erabili ahal izango da. Hala badagokio, "zurituak" jarri ahal izango da. 1983ko azaroaren 16ko Agindua, lekaleen kalitate-araua, 8. art.</li> <li>❺ Ontzi guztiek ohar bat izan beharko dute ontziratze-lotea identifikatu ahal izateko, eta, horretarako, ontziratze-data erabili ahal izango da. Derrigorrezkoa izango da administrazioaren zerbitzu eskudunen eskura jartzea lotea identifikatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzen dituen dokumentazioa. 1983ko azaroaren 16ko Agindua, lekaleen kalitate-araua, 8.1.6 art.</li> </ol>